






Jean-Louis Davant

Txomin
Peillenez






Jean-Louis Davant Iratçabal

Pettarreko Urrüstoi Larrabilen (Zuberoa) sortua da 1935ean, laborari-artzain familia batean. Aita bertakoa da, eta ama Basabürüko Altzai herrikoa. Jean-Louis sorterrian bizi da egun.

1975tik idazle militantea da, *Gazte, Herria, Enbata, Euskaldunak, Egia, Branka, Zehatz, Zabal, Herriz-Herri* eta beste hainbat aldizkaritan idatzi du laborantzaz, ekonomiaz, sozialkondeaz, politikaz, historiaz eta kulturaz. **Enbata eta EHAS mugimenduen sortzaileetarikoa** da.

1980an hasi zen literaturan, **bereziki poesian**. 1975ean **Euskaltzain oso** izendatu zuten, zuberera euskalkiaren izenean.


Zuberoako literaturaz antologia laburra idatzi du. Peillenek XV, XVI eta XVII. mendeak aipatu zituen, eta **Davantek XVIII. eta XIX. mendeak hartu zituen kontuan**.



Txomin Peillenen ezagutza egin nuen 1957ko uztail ondarrera, Hazparneko "Saint Joseph" kolegioan, Embataren ikastaldi batean. **Embata** hau, **M**rekin, ez zen mugimendu politikoa, hura urte zenbait berantago sortuko baitzen, grafia berriaren arabera **N**rekin.

Lehena euskaldun ikasleen elkarte zen, eta urtero, udako oporretan, astebeteko ikastaldi bat antolatzen zuen, gai ezberdinez. Urte horretako hizlarien artean, gogoan ditut **Lafitte** filologoa, **Errecart** senadorea eta **Leizaola** Lehendakari ordea, Paristik jaitsia. **Txomin Peillen ikasleen artean zegoen, Txillardegiren eleberri bat eskuan:** agertu berria zen "Leturiaren egunkari ezkutua" komentatzen zigun atsedenaldietan, Paterra errezatu balu bezain errazki.


Haatik ez dut uste Txominek otoitz egiten duenik, atea baita, Jainkoari eskerrak frantses umoretsu batek zioen bezala : "Je suis athée, Dieu merci!" Eta ni kristaua naiz, katolikoa ere, Jainkoaren graziaz. Txominekin ez dut behinere arazorik eduki gai horrez, ateo lasaia baita, besteen sinesteko eskubidea zinez errespetatzen duena.



Baina hastetik has gaitezen. Txomin Parisen jaio zen 1932ko azaroaren 17an; Aita-amak zuberotarrak zituen, Basabürükoak. Berak dio paristarra dela, eta badu horretarik itxuran, janzkeran, umorean, **elasturian** : "titi parisien" baten antzo. Baina zuberotar batzuek bestalde kraka horretarik badute : bortu aldekoak bereziki, maiz meharrak dira, erne, sotil eta luxeak, elestari eijerrak gainera.

Asko ibili behar dute edozertarako, eta bidezidorretan besteekin topo egiten dute ardura. Pettarrek ordea besoz gehiago eta oinez gutiago, etxaldean autonomia gehiago eta beraz arrotzekiko harreman gutiago: horrez usu motzagoak gara.

Aita-amek ez zioten euskararik irakatsi: beren artean zubereraz ari ziren, baina bi semeekin frantsesez. Txominek bere kasa ikasi zuen, bereziki **Andima Ibinagabeitiarekin**. Gaztetik hegoaldean gaindi asko ibili da, gehienik Gipuzkoan, adiskide minak eginez, hala nola **Jon Etxaide**, Urdatxeko bortua zinez maite zuena.




Txomin Parisko euskalduna dugu, oro har mendiko zuberotarra, nire ama zenak erranen zuen bezala "bortuko xahala", geldiezin. **Oin bata Baionan du, bestea Urdatx/Santa Grazin**, han etxea baitu erosiz, Ibarbürüa: beraz euskal ohituraren arabera, "Ibarbürü" deitzen ahal dugu.

Santagraztar guziak bezala, "xahakotarra" da, haatik ez xahakozalea, ez edalea. Bestelan ere, bizitzako urratsetan franko zuhurra ikusten dut, **kasik puritanoa, baina ez hertsia, ez eta tristea**. Kristaua balitz, beneditar asma nezake franko aise: beneditar jakintsu eta kasik beti alaia, **Iratzeder** zena bezala, etxean ez balu Santa Mariaz beste maite bat.

Aldiz elez eta izkribuz, **erotismo umoretsu batean dabila**, hala nola ostatuko mahai xoko batean, lagunarteko solasetan, eta idazlan batzuetan, adibidez "Ale berdeak" liburuan. Baina lizunkeriak ez ditu maite, sotilki ari da, eta **emakumeei errespetu handia die**.


Txominek eskua idazlan mota guzietan sartzen du, **denetan asko badaki, teologian ere ni beldur**. Gogoia beti alhan du, erraztasun izigarria du denen irensteko eta beretzeko, halaber adierazteko, bai lumaz, bai mingainez eta eskuen keinuz.



Ikerlari dohaina du, ezin asea ; irakasle sena ere bai, eta hori zuen ofizioa, bai Paris aldean, baita Baionako Fakultatean; idazteko bizioa du halaber, eta komunikatzaile oparoa da. Segi luzaz horrela, Txomin, ez gaituk aspertuko!

Zuberotarra izanarren, bere zabaldura kontutan harturik, baita Baionako hiritartasuna, **Euskaltzaindian sartu genuen Larzabal** apaiz lapurtarraren ondoko, **Arturo Kanpion** nafarrak estrenatu zuen alkian, hots Akademiaren historiako lau lehenetan.

Duela hogeita hamalau urte Euskal Herrian bizi izan bazen, Zuberoako euskaltzaina izango zen, baina Parisen zegoen. Beraz **alkia niri eman zidaten. Baina ez nintzen lasai egon Txomin gutartean ikusi arte: Larzabal** zenduaren ondoko proposatu nuen euskara batuaren izenean, eta iparraldeko beste bost euskaltzainek enekin aurkeztu zuten.



Txominen curriculuma bestalde aurkitu dezakezue. Ez dizuet adarra joko xeheki aurkeztuz, luzeegi bailitzateke, hain da oparoa. **Ikerlari eta idazle polifazetikoa dela esatea, guti esatea da.** Azpimarra ditzadan halere batetik Txominen eleberriak, hainbat literatur sarirekin, bestetik ikerlan ugariak aldizkari eta liburu askotan banatuak, gainera publikatzeko eduki dituen nekeziak ahantzi gabe.

Azken hitza Thérèseri. Normandiatik Euskal Herrira etorri zara. Ez da iduri bezain harrigarria. Historian barna harreman ugariak izan dira, batetik itsasokoak bi lurraldeetako marinelen artean, bestetik politikakoak dukerri ospetsuaren eta Nafarroako erresumaren artean. Adibidez Nafarroako arrano beltza Normandiatik etorri zitzaigun, Margarita Perchekoak 1134 urtean ezkontzaz ekarria Gartzia Ramirez Berrezarlea erregeari. **Eta zuk, Thérèse, Txomini beste txoririk ekarri diozu.** Haatik ezin hautatuz niagozu zein den: ainara lankidea, ala bakearen usoa, Txomin lasaitzen duena? Biak agian? Txominek badakike.

Jean-Louis Davant, Ürrüstoi-Larrabilen 2009ko maiatzaren 26an

Euskal PENek eman nahi dio

Euskal **PEN** Idazluma

Txomin Peilleni

**adierazpen askatasunaren alde
egindako lan eskergagatik**